



• DEABRUAREN ABOKATUA •

“Abortu bat ez da frakaso bat, alderantziz”

Luis Elberdin | Askabide

Bere lanean sinesten duenak ez du esaten duena sinestarazteko lanik.

SUSTRAI COLINA
Argazkia: Dani Blanco

Esadazu sexologoei hainbeste gustatzen zaiuzen egia borobil eta progre horietako bat.

Sexu harremanetan zer gertatu behar den eta zer sentitu behar dugun inposatzen digun gizarte eredu batean bizi garenez, gidoi hori betetzen dugun marionetak baino ez gara.

Berriz ere sistemaren errua!?

Gobernua ez dago ohean, baina sistema bai. Auto-istripu bat dugularik errua besteari egotea da joera naturala, baina sexuan ez. Zalantzan ereduak jarri beharrean gure burua jartzen dugu.

Aizu, oraindik alarde mistoak onartzen ez diren herri batean bizi gara, e.

Bai, baina gaur egun emakumea da ohe gainean baldintzak jartzen dituenak, eta hala behar du. Gizonezkook inposatutako lau muxu, bi laztan, sartzea, eta segundo berean korritzearen ereduak ez dauka zerikusirik anatomicarekin.

Ez da izango...

Gauza bat da bizi-proiektu baten baitan emakumeek gurekin intimitatea konpartitu nahi izatea, baina hori bezain egia da ez gaituztela ezertarako behar. Ez da kasualitatea banatzeko erabakia gehien-gehienetan emakumeak hartzea.

Ez da erraza XXI. mendeko gizona izatea!

Bukatu da gizonezkoak kontsultara, John Wayne *saloon*-era nola, armairu bat bezain

harro sartzen ziren garaia. Orain oso xume, oso umil datoz, akonjatuta, eta bikotekidearen plazerarekin oso kezkatuta.

Eskolak bere lana egin balu, agian...

Denak gaude sexu-heziketaren garrantziarekin ados, baina gero... Ez dago azalekoaz haragoko ezer egiteko borondate politikorik. Sexuak ez du botorik ematen, nonbait.

Nola ezetz? Ez al dira abortuaren legea prestatzen ari?

25 urte geroago iraungita jaio zen lege bati adabakia jartzen ari dira. Zer egingo duten? Orain 25 urte Frantziar Estatuan zegoen legea martxan jarri. Alegia, hamalagarren aste-ara arte abortua baimendu eta hortik aurrera turismo sexuala, Holandara edo Denverrerara, abortatzera.

Zer dira, frantsesak oso aurrerakoiak ala espainolak oso atzerakoiak?

Gaur egun, Espainiako Estatuan, emakume batek haurdunaldia eten ahal izateko erdi erotuta edo senetik irtenda dagoela onartu behar duela esaten badizut, zer uste duzue?

Jendeak larrua jo eta gero irakurtzen duela zuek zabaldutako informazioa!

Tabako paketeetan erretzeak hiltzen duela jartzen du baina jendeak berdin-berdin erretzen du, ezta? Nahigabeko abortuak beti existitu eta existituko dira, baina abortu bat ez da frakaso bat, alderantziz. ■